

## Hizkuntzaren eraginak

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-08-03: 2.

Hizkuntza, izaki biziduna da. Egunero zatika hiltzen eta pizten doan arnasduna. "Eman arnasa euskarari!" izan zen Iurretan orain hiru aste erabili genuen lema. Ez da harritzekoa, beraz, euskarak galdu duenaren zerbaitetaz gu kexatzea, eta une berean sartu dioten hitz edo esaldi aldrebes batekin topo egiten dugunean haserratzea. Gaur mintzaira guztien leloa da hau, munduan zehar komunikabideak hizkuntza guztietan bata bestean eragin hau jasan behar izatea, batez ere, hiztun gutxi dituenen kaltetan! Hau jakinik, ez gaitu loak hartu behar! Baina, bestalde, kontuan eduki dezagun zuhaitzaren antzera hizkuntzak ere hostoak eihartu, hosto berriak ernetu, hizkuntza bakoitzak ere bere barruko aldaketak bizitzea legezko dela. Niri behin sendagile batek humore handiz esan zidan bezala: "Hemen eta hor mina dukan artean, bizi haizen seinale duk; ezer sentitzen ez dukanean, hilik hago". Ez zait ahaztu esaldi hau eta honen esangura sakona. Egun hauetan irakurri dudan zerbaitek batu zentzu handia guretzat: "Motibaziorik eza dago (gure herrian) euskara ikasi eta erabiltzeko". Eragin motibatua hau sartu gabe alferrik ari gara euskara erakusten gero hizkuntza erabiltzera behartuta, "motibatuta", ez bagaude. Hau txinerarekin gertatzen baita, ingelesarekin, eta baita gaztelera eta frantsesarekin ere. Euskararekin ere bai, eta gertatu berri zaidan hau pasa nahi diot irakurleari: Eusko Jaurlaritzako Protokolo sailera deitu dut, niri egindako gonbiteak eskatzen duen bezala, ene baiezkoa emateko, eta hara nola erantzun didan emakumezko ahots xarmantak: "No le entiendo, ¿me lo puede decir en castellano?".